20 19

LA ZURRIOLA

Urumea ibaiaren ahokadurak, bere ezkerraldean, hondarrezko tonbolo bat sortu zuen eta horrek Urgull mendia (lehen irla bat) kontinentearekin batu zituen eta eskuinaldean, berriz, hondartza handi bat eratu zuen. Urgull eta Ulia mendien artean Zurriola izeneko senadi bat zegoen. Hondartza handi batek hareatza eta itsasoa lotzen zituen, eta hortik barrualderantz jarraituz gero, dunen zelai bat aurkitzen zen. Haren zati handienak “Gros” familiaren esku bukatu zuen, eta azkenean, aipatutako familiaren abizena erabili zuten XX. mendeko lehenengo urteetan, bereziki, hareatza horretan egindako urbanizazioari izendatzeko.

Zurriolako hondartzaren aurrealdean jauregi ugari eraiki ziren, lehenengo lerroan. Horren helburua jauregi horiek urbanizazio berriaren aurrean jartzea, itsasoari lurraldea kenduz, hondartza urbanizatzeko prozesuaren bidez.


Proiektu honen ibilbide administratiboari ekin egiteko kudeaketak 1907. urtean hasi ziren garatzen. Urte horretan Udalari itsasoari lurraldeak kentzeko baimena eman zioten, beraz, hainbat harresi eta aldapa eraiki zituen (Marcelo Sarasola, 1904). Lehenengo emakida Vogel jaunari 1909. urtean egin zitzaiona izan zen. Hura exekutatu gabe iraungi ondoren, 1910. urtean, Udalak Frantziako kapitalista batzuei eman zien (1911-2-18), León Malleville buru zutela. Ondoren, Sociedad Inmobiliaria eta del Gran Kursaal Marítimo de San Sebastián elkarteri igorri zitzaion (1911-2-27), eta horrek honako hauek eraikitzeko konpromisoa hartu zuen gain: kostaldeko harresiak (1925-11-19), zubi bat (Zurriolako zubia, 1920), eta orubeak saneatzea (1922-1925) eta baita zenbait lurralde azalera Udalari hitzartutako prezio batean lagatzea eta saltzea ere.

Horren ordainean, emaitzazko orubeak jabetzan eta Kursaal baten monopolioa jasoko zuen (kasino, antzokia, jatetxea, etab. 1922an inauguratuta).

Orubeak hogeita hamarreko hamarkadan eraiki ziren Kolon Pasealekua eta itsasoaren artean, eta horretan saiatu ziren bertan existitzen zen bilbera egokitutako bilbe oktogonal bat hartzen.

Hala ere, itsasoaren aurrealdeko eraikinen lehenengo lerroa, guztira bost etxadi, eraiki gabe geratu zen, kostalde-harresia egina egon arren. 1955ean, ekaitz batek kostaldeko horma kaltetu zuen eta azkenean erabaki zen lehenengo lerroko eraikuntzak ez egitea, eta horrenbestez, harresia partzialki kendu zen, hondartza txiki bat osatzeko helburuarekin, aipatutako harresiak azken horren zati bat babestuz. Hondar horri “Groseko Hondartza” deitu zioten.


1990eko hamarkadaren erdialdean Kursaaleko urbanizazioan galdutako hondartza zaharberritzea planteatu zen, kai-mutur baten bidez, kostaldeko harresi zaharra kenduz, hondarra ekarriz, itsas pasealekua zaharberrituz (Antón Pagola eta Luis Uzcanga, 1995) eta Auditorio eta Batzar Jauregi bat eraikiz (1999), 1977an eraitsitako Kursaal zaharrak hutsik utzitako orubean.




Kursaal Zabalgunea Erreformatzeko proiektua.




Zurriolako hondartza Ulia menditik ikusita, birmoldaketa dagoeneko egina dagoela.



Ortoargazkia 1956-57. Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. IGN.
1. Kursaal (jatorrizko eraikina).
2. Kostaldeko harresia.



Ortoargazkia 1983. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia.
1. Huts egindako Kursaaleko zimendatzea.
2. Eraitsitako kostaldeko harresia.
3. "Behin-behineko Groseko hondartza.



Hiri ortoargazkia 2007 / 2009 . Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 583049 m // Y: 4797615. m.

1. "Kursaal" Auditorioa eta Biltzar Jauregia
2. Hondartza osatzeko kai-muturra.
3. "La Zurriola" hondartza berria.